

«Presoen gaian pausoak konpasatu behar dira, zaratarik atera gabe»

Joseba Aurrekoetxea • EAJren EBBko Antolakuntza arduraduna

Aurrekoetxeak uste du garai berri bat dagoela euskal gizartearen eta presoen alorrean ere aurrerapausoak emateko baldintzak daudela. Irtenbide bat emateko EAJk denekin hitz egiteko prestasuna daukela dio.

Enekoitz Esnaola Bilbo

Urteak daramatza Joseba Aurrekoetxeak (Portugalete, Bizkaia, 1960) bakearen eta giza eskubideen gaian lanean, EAJren ordezkari instituzional edo EBBko kide modura. Azkenaldian, euskal preso ohiekien eta Sortuekin egindako bileretan, Foro Sozialaren topaketetan eta Balonan ETaren armagabetze egunean izan da. Inigo Urkullu Jaurilaritzako lehendakariaren belaunaldiko politikaria da EBBko Antolakuntza arduraduna. Bihar azalduko du Urkulluk EBBn Mariano Rajoyrekin espetze eskumenaz eta egindako bilkura. Aurrerapausoak emateko baldintzak ikusten ditu Aurrekoetxeak.

Zer moduz joan zen lehengo astean Urkullu-Rajoy bilera?

Aste honetan ez dugu EBBren bilera egin, aste hasiera jai izan delako. Datorren astelehenean egingo dugu, eta orduan izango ditugu xehetasunak. Dena dela, bi gobernuak duten hartu-eman normal bat izan da bilera hori. Urkullu aspalditik ari zaio aldarrikapenak mahai gainean jartzen, eta oraingoan ez dio ezer berririk aipatu.

Espetze eskumena jasotzea al da aldarrikapen horietako bat?

Hala da. Aldarrikapen historiko bat da. Ez bakarrik EAJrena; Gernikako Estatutuan dator. 1979an onartu genuen. Garaia da izateko. **Zehaztuz, Gizarte Segurantzaren eta biak al dira zuentzat jasotzeko diren eskumen garrantzitsuenak?** Bai. Agian, kudeatzeko konplikatuak ere horiek dira, estatutua onartu genueneko testuingurua asko aldatu baita bi arloetan.

Javier de Andres Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak dio Jaurilaritzak espetze alorrean badituela segurtasun, hezkuntza eta osasun eskumenak, eta erailkinarena soilik falta dela.

Baina espetze eredu bat garatzeko ahalmenik ez daukagu, eta hori izatea oso garrantzitsua da geure kudeaketa egin ahal izateko.

1979tik inoiz egon al da espetze eskumena jasotzeko aukerarik? Nik dakidala, ez.

Orain ba al dago?

Estatutua betetzea da gauzarik logikoena. Bestela, beste egoera baten aurrean jarriko gara.

Aurreko astean, Juan Luis Ibarra EAEko Auzitegi Nagusiko presidentek BERRIAN adierazi zuen bera gai horretan 1990eko hamarkadan lanean aritu zela eta Jaurilaritzak orduan ez zeukala interes handirik eskumenean.

Ni seguru nago Jaurilaritzak denek jarri dutela mahai gainean gaia. Orain, beti aztertu behar da nola jaso dezakezun eskumen bat, zer baldintzatan, eta, agian, ez zaizu interesatzen jasotzea. Guretzat garrantzitsua erabakitze gaitasuna izatea da, geure erabakiak hartzeko. Nazio erakuntza nahi badugu, espetze arloa edo sistema geure esku eduki behar dugu.

Azken hilabeteetan, hedabide batzuetara filtratu da PPrekin euskal presoen gerturatzeari hitzketan zabilatzela. Ari al zarete?

Ez dago ezer berririk. Gure eskaera aspaldikoa da, eta publikoa. Lehendakariak aurkeztu izan du planik, Bizikidetzako idazkaria mintzatu izan da, Eusko Legebiltzarra onartu izan du moziorik... Ez dago, beraz, gauza arrarorik orain.

Aipatu da Hego Euskal Herriko 250en bat kilometroa dauden hamar karteletara gerturatu litzateke euskal presoak.

Baina asmaoa ez da berria. [Rajoy] Presidenteak berak badu gure planteamendua. Gure posizioa jakinekoa da, jendeak badaki zein den. Beste kontu bat da gauza horiek aurrera eramatean diskretua izatea, ez ibiltzea guztia kontatzen. **Posible ikusten al duzu Espainiako Estatuan ditzuten euskal presoak euskal karteletan egotea?** Gaur egun, ez. Ez dago baldintzarik horretarako. Nahiago genuke Euskal Herriko karteletan baleude presoak, baina... Bitarteko pausoak eman daitezke, ordea.

EPPK-k eskatu du Espainiako Estatuan direnak Zaballako karteletan batzeko —eta Frantziako Estatuan daudenak, Mont de Marsangoan—, baina, era berean, jakinarazi du «kaleratzea helmuga duen prozesu dinamiko bat» badago ontzat joko duela «batze oro» eta «hurbiltze oro».

Bitarteko pauso bat litzateke gerturatzeko. Gainera, euskal gizarteak onartu du beharrezkoa dela.

EAJk eperik eman al dio Rajoyri espetze eskumena igortzeko eta euskal presoak gerturatzeko?

Ez dugu halakorik planteatu. **la batera hasi dute egungo agintaldia Urkulluk eta Rajoyk. Bien legealdi honetako kontutzat al ditzue aldarrikapen horiek?**



Nahiago genuke Euskal Herrian baleude presoak, baina egun ez dago baldintzarik. Bitarteko pauso bat da gerturatzeko»

«Pieza egokiak momentu egokian jartzea da kontua. Estatuaren pausoa falta da; presoek eman dute bat»

«Eragindako mina aitortzeko eskatu behar zaie presoek, gutxienez. Azterketa kritiko bat egin behar da»

ETA beti berandu iritsi izan da lekuetara, presoak ere bai, eta orain salatu behar gara gauzak aurreratzeko, askorentzat beranduegi gertatzen ez dadin. Hobe gauzak agintaldi honetan egitea eta ez hurrengoan. Normaltasunaren eta bizikidetzaren bidean joan behar badugu, eman ditzagun aurrerapausoak.

Espainiako Kongresuan gutbidegoan dago PP orain.

Baina ikusi beharko litzateke estatuko beste alderdiek zer esango luketen gai hauetaz. Ez dut oso argi ikusten. Alferrikakoa da Madrilen EH Bilduren eta gure babesa soilik

duen ekinbide bat proposatzea. Jakin behar da adosten, unerik aproposena zein den jakiten... **Lehendabizi, PPrekin saiatuko zarete, hortaz.**

Hura dago gobernuan. Baina beste aukerak ere aztertu behar dira.

PSOErekin ere baduzue komunikazio bide bat irekia. Joan den astean Pedro Sanchezekin bildu ziren Urkullu eta Andoni Ortuzar. Gai hauek ez dira Sanchezen lehenasuna. Egonkorta behar du lidergoa, alderdia antolatuta... Baina hitz egin behar da PSOErekin eta besteekin, ez PPrekin bakarrik. **EAJk Madrilen PPrekin EAEko kupa eta Espainiako aurrekontuak negoziatzen, presoen gaia ere izan al da mahai gainean?**

Ez, ez baitu zerikusirik. Gainera, espetze arloko gai honek jende gehiagori eragiten dio eta haiekin ere egon behar gara. Adostasuna lortzen bada, askoz hobeto. Guk foro batzuetan parte hartzen dugu, denok pozik egoteko moduko planteamendu bat ateratzeko. Ez goaz domina baten bila. Ez dugu protagonismoa nahi. Lagundu egin nahi dugu.

ETAren armagabetzean euskal instituzioak, alderdiak eta gizarte zibila norabide berean aritu ziren. Presoen gaian ere

aritzeko aukerarik ba al da? Indarkeria baten ondorio dira presoak, baina indarkeriaren garai hartan onartutako salbuespen izaerako legeak neurri oro desagertu behar da, egoera berri bat baitago. Nik uste bestelako interpretazio batzuk egin daitezkeela. EPPK-k onartu egin behar du espetze sistema hor dela eta, beraz, jarraitu behar duela. Gai honetan alde batetik eta bestetik pausoak konpasatu behar dira, zaratarik atera gabe eta inork esateke berak irabazi duela. **Lan konpasatuaz ari zarela, ba al duzue harremanik Sortuekin?**

Azkeneko hiru bat hilabeteen ez, ETaren armagabetze garrantik. Ezker abertzalea ohartu da berak bakarrik ezingo duela egoera hobetu. Gu Eusko Legebiltzarrean ere ari gara lanean. Lehendakariak ere badauka prestasuna. Gizarteaztertuta daukagu eta prest dago gauza batzuk onartzeko. Beraz, baldintza asko daude aurrera egiteko. **Foro Sozialaren topaketetan egoten da EAJ ere. Garrantzitsua al da gizarte zibilaren lana?**

Ez gaitzen engaina: gauzarik garrantzitsuenak ez dira sortuko foroetan. Aktore nagusiak estatua eta presoak dira. Beste batzuek modu lasaigo batean ideiak emateko balio badute foreok, laguntzen badute, ondo baino hobeto.

ETAren armagabetzean Ipar Euskal Herrian gizarte zibilak funtsezko lana egin du. Zeu ere izan zinen Baionan apirilaren 8an.

Gizarteak armagabetzea nahi zuen, eta ETAkikusi zuen hori. Galanta litzateke gizarteari bizkarra ematea. Baina askotan esan dira herriak jarraitzen nau eta halakoa, eta ez da horrela ere.

Zuk uste Frantzia inplikatu egin zela ETaren armagabetzean?

Gutxienean, egiten utzi zuen, eta hori asko da. Ikusi zuen ekinbide baketsu bat zela, ondo antolatutakoa, ezezla arazorik sortuko, eta ez zuela zertan jarri zailtasunik.

Urkullu bildu zen Rajoyrekin. Gauzek funtzionatu dezaten pieza egokiak momentu egokian jartzea da hemen kontua.

Presoenean nola daude piezak? Kokatzen ari dira.

Zer falta da? Edo zein falta da?

Estatuaren pausoa falta da. Ikusi nola dagoen PP. Beharko du denbora bat eman dute bat. Piezak kokatzen joan daitezke eta ez da beharko bitartekaririk. Diskrezio handia behar da. Sufrimendu handia egon da, presoak kalera iritertzen joango dira, hor daude biktimak, eta ez da komeni gauza hauek argitara ateratzea zarata handiarekin.



MONIKA DEL VALLE / ARGIAZKI PRESS

Espetxe eskumenari lehentasuna ematen diozue. Kasu zehatzetan, zein dira premiazkoenak?

Nabarmena da gaixorik dauden presoek gaia garrantzitsua dela. Kartzelan urte asko daramatzaten presoek gaia ere hor dago. Salbuespeneko neurriak ere bai. Erritmoak doitu behar dira. Naturaltasunez egin behar dira gauzak, inor saiatu gabe etekina ateratzen.

Tokiko Espetxe Zaintzako Epaitegia izatea ere nahi duzue.

Espetxe eredu baterako funtsezko osagaia da. Epaitegi horrek aztertu lituzke presoek eskaerak.

Zer nabamentzen duzu EPPKren gogoetako ondorioen idatzitik?

Oso garrantzitsua da espetxe sisteman jarrera bat edo bestea izatea. Esan dute legezko bidea jarraituko dutela, preso bakoitzak erabakiko duela zer urrats egin... Berandu dator EPPKren dokumentua, baina erabatekoa da jarrera aldaketa.

2013an ere iragarri zuen legedia jarraituko zutela presoek.

Baina praktikan... Orain alde da go. Esan du damua eta salaketa baztertu dituztela presoek, baina hortik aurrera espetxe sistemako guztia beren gain hartu du: baimenak, graduen progresioa... Presok ohartu dira bide hori jorratu beharra daukatela, eta banan-banan. Hau guztia ondo konpasatuta egin behar da emaitzak izateko.

Zer diozu EPPK-k damua eta kolaborazioa baztertu izanaz?

Eragindako mina aitortzeko eskatu behar zaie, gutxienez. Izan ere, azkenean presoek eta biktimek topo egingo dute kalean. Hemen go instituzioak, esaterako, lan handia egiten dira gai horretan.

Jauriaritzaren Hitzeman gizarte-ratze planak dio presoaren «gogoeta autokritikoko prozesu eti-

koak» bultzatzea eta indartzea duela helburuetako bat.

Gertatu denari buruzko azterketa kritiko bat egin behar da. Agian, gauzak oraindik beroegi daude. Berriki garai bateko hitzaldiak entzun ditugu biktimen ekitaldi batzuetan. Unea topatu behar da. Gizarteak nahi duena da gauzei irtenbide ematea modu natural batean, eta gizarte demokratiko eta moderno batek eta zuzenbide estatutu batek dituen mugen barruan.

PPK dio ETA desegin artean ez dutela aldatuko espetxe politika.

Ez da beti baldintzak jartzen ibili. ETA deseginda ere PPri igual ez zaio aski izango. Ezbairrik gabe, ETA desegin egin behar da. Ahal den azkarren badago hori, denontzat hobeto, harentzat barne.

Halakorik bada, noizko espero?

Ez dakigu noiz etorriko den. Nahi baino beranduago izango da.

Aurten gertatu dira gauzak: ETArekin armagabetzea eta EPPKren eztabaidako erabakia.

Erne: ETAk jarduera armatua 2011n bukatu zuen. Ondoren azkar egin izan balute beste guztia...

2013ko abenduan ateratu zuen EPPK-k adierazpena, eta ETAk 2014ko otsailan iragarri zuen hasi zela desarmatzen.

Bi-hiru urtera... 2011tik aurrera kontakizunaren enfrontamendu bat egon da, garaile eta garaituena, eta erresistentziak eta blokeak sorrarazi ditu. Gizarteak beste erritmo batean doa, baina beretzat eskandalaria ez diren gauzak onar ditzake. Indarkeriaren aroa itxi behar dugu. Hala ere, esan nahi dut herri honek erakutsi izan du indarkeriaren oztopoa egon arren aurrera egin eta eraikitzen. Orain euskal herritarrok erabaki egin behar dugu zer izan nahi dugun.

www.inmosalbide.com

SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Zarautz. Itxasmendi. 3 Logela. Sukaldea. Jan gela eta sala. Trastelekua. Kalefazioa gasarekin. Oso Prezio Ona. **234.400 euro!**

Zarautz. Kiriki Kalea (Alde Zaharra). 3 Logelako etxea. Trastelekua, Gasa eta Igogailua. **250.000 euro!**

Zarautz. Musika Plazan. 100 m2 -ko etxea. Gustiz berrituta. Igogailu eta Gasarekin. Oso eguzkitsua. **425.000 euro!**

Zarautz. Vista Alegre hasieran. 3 Logelako etxe gustiz erreformatua. **330.000 euro!**

Zarautz. Azken Portu. 3 logelako etxea. Oso egoera onean. Ez du igogailurik. Kalefazioa gasarekin. **264.500 euro!**

Zarautz. Argoin Auzoa. 3 logelako etxea egoera onean. Txabola-Garajearekin (45m2). **225.000 euro!**

Bizkaia kalea, 6 - 20800 Zarautz Tel.: 943-01 07 00 - Mug.: 665-71 85 96



Ondasun higiezin enkantea:

- a) **Etxebizitza:** Zurriola etorbidea, 16 (Donostia), 3. solairua. Sarrera, egongela, sala, sei logela, sukaldea, office-a, hiru bainu gela eta hiru balkoi. 245 m².
- b) **Lokala:** Egia etorbidea 9ko beheko solairua, bainu gela. 55m².
- c) **Lokala:** Zarategi pasealekua 31C-ko beheko solairua, hiru gela-tan banatuta, bainu gela. 86 m².

Informazio gehiago:
www.hernani.eus/leu-tsubasta

berria laguna

Gaztelu-Begi

JATETXEA-OSTATUA
Ikuspegi miragarriak

